



EBAZPENA, Hezkuntza-Sailburuordearena. Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei zuzendutako jarraibideak onartzen dituen, 2022-2023 ikasturtean Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuak (HBSP) egiteko eskaerak egin ditzaten.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruak Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunarekiko arreta ezartzen ditu ildo estrategiko gisa. Eskola inklusiboak ikasle guztiei hezkuntza-aukera berberak eskaini behar dizkie, bai eta behar dituzten laguntzak ere (curriculumekoak, pertsonalak, materialak), aurrerapen akademiko eta pertsonalerako eta autonomia garatzeko. Testuinguru bat eraiki nahi da, pertsonen egokিতuta, non ezberdintasunak artatuak izango diren eta talde edo pertsona ahulenek behar dituzten laguntza eta laguntza espezifikoak bermatuko diren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak zera dio: Oinarrizko Hezkuntzak gizakien ahalmenak osorik garatu behar ditu eta bizitza osoan zehar behar diren oinarrizko kompetenziak eskuratzea, errealizazio eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko gizarteratzeko eta enplegua lortzeko. Aniztasunari erantzuteko neurriak zehazterakoan, ezartzen da Berariazko indartze-programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren ikasturteko ikasleentzat direla, ahulezia-egoeran dagoen gizarte- edo kultura-ingurune batean daudelako, edo eskolara egokitzeko arazo larrien ondorioz porrota jasateko arriskuan daudelako.

Horregatik guztiatik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 DEKRETUAN eta oro har ezartzekoak diren gainerako xedapenetan xedatutakoarekin bat eginez, deia egiten zaie Hezkuntza Sailaren mendeko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zentro publikoei, 2022-2023 ikasturtean, Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuak (HBSP) egiteko eskabideak egin ditzaten.



EBAZTEN DUT

1. Deialdiaren xedea eta dotazioa

Deialdiaren xedea da Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei egitea da Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Proiektu inklusiboak (HBSP) abiaraz ditzaten, zehazki gizarte- edo kultura-egoera zailtan dauden edota eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleekiko hezkuntza-ekintza zehazten dituzten proiektu inklusiboak abiaraz ditzaten. Programa ingurune arruntetan garatuko da, inklusibotasunean oinarrituta. Proiektu horiek 2022-2023 ikasturterako onartuko dira soilik.

Eraldatzen programan parte hartzen duten ikastetxe publikoek eta Hezkuntza konplexutasunaren indizea (HKI) oso altua edo altua duten ikastetxeek izango dute lehentasuna, betiere deialdiko baldintzak betetzen badituzte.

Programak 100 irakasle izango ditu, gehienez ere. Eskabidea egiten duten ikastetxeei Ebazpen honetan aurreikusitako Hautaketa Batzordearen bidez esleituko zaizkie baliabideak. Esleipen hori ikastetxeko bi irakaslekoa izango da gehienez. Programa honek 5.276.730 euro inguruko kostua du, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen eta Europako Gizarte Funtzak hezkuntzan aurrera egiteko duen orientazio- eta indartze-programaren kontura.

2. Hartzaileak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoek eskatu dezakete laguntza hau.

3. Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Proiektuaren ezaugarriak

3.1. Ikasleria

Proiektu hauen hartzaileak izango dira:

- DBHko 1. mailan 2022-2023 ikasturtean matrikulatutako 13 edo 14 urteko ikasleak, 2022ko abenduaren 31 baino lehen beteak
- DBHko 2. mailan matrikulatutako 14 urteko ikasleak, 2022ko abenduaren 31 baino lehen beteak eta:
 - Eskolan atzerapen handia izan behar dute, batez ere arlo instrumentaletan, eta atzerapen horrek gizarte-egoera kaltetuetan egotearekin loturik egon behar du.
 - Eskolara egokitzeko arazoak izan behar dituzte, sarritan ikasketetan atzeratua ibiltzearekin batera.
- 2022-23 ikasturtean, 13 urteko eta DBHko 2. mailan matrikulatutako ikasleria, oso arrazoi justifikatuagatik (beste sistema baten eskolatu izana, egokitzeko arazoengatik mailaz igo izana...) ez duena kurtsorik errepikatu baina hutsuneak dituen arlo instrumentaletan.



- Salbuespen gisa, 2022-2023 ikasturtean DBHko 2. mailan matrikulatutako 15 urteko ikasleak sar daitezke, atal honetan adierazitako baldintza bereberekin, baldin eta irakasle-taldeak uste badu ez dagoela DBHko 3. mailara igotzeko moduan, ezta beste prestakuntza-ibilbide batzuk hasteko moduan ere.

3.2 Betebeharrak

Ikastetxeek, proiektuen garapenean kontuan izan behar dute:

- Aipatutako perfilarekin gutxieneko 8 ikasle duten taldea osatzea.
- Proiektuaren balorazioan gutxienez 18 puntu lortzea
- Ikastetxeak ezin izango du bateratu talde batean deialdi honetan parte hartzen duen ikasleria guztia, deialdi honetan ohiz kanpoko diren jarduerak zein baliabideak erabiliko ditu ohiko ikasgela barruan antolaketa eta metodologi aldaketak egiteko.
- Deialdi honetatik kanpo geratzen da baliabideak ratioak jaisteko edo taldeak eta saio bereziak sortzea baliabidea behar duen ikasleriarentzat, hizkuntzetan komunikazioa lantzeko banaketa heterogeneoetan ezik.
- Ohiko talde barruan ikasle hauei arreta pertsonalizatutako neurriak ematea, (banakako tutoretzak, egoera berean dauden ikasleekin egindako tutoretzak, pedagogia-kontratuak, ikasle enbaxadoreak, babesletzat, berbalaguna ...)
- Proposatutako ekintzak aurrera eraman ahal izateko erantzukizuna hartuko duen irakasleria egonkorra izatea ikastetxean.

3.3 Proiektua garatzeko jarraibideak

- HBSP ikastetxeko ikasleen aniztasunari erantzuteko plangintza bateratu eta oso batean txertatu behar da, eskola inklusiboaren proposamenetan oinarrituta.
- Proiektua osatzen duten jarduera zein baliabide guztiak, ikastetxean ohikoak zen ohiz kanpokoak direnak, ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratu behar dira, deialdiaren xedean aipatzen diren egoeretan dauden ikasleei arreta berezia eman behar bazaie ere.
- Ikaskuntza hobetzeko ikasleria honengan itxaropen handia eta estrategia inklusiboak erabili behar dira, berdinen artean eta pertsona helduekin harremanak izatea bultzatuko dituztenak, adibidez:
 - talde bakoitzeko irakasle-kopurua murriztea, hau da, irakasle batek ikasgai bat baino gehiago ematea, talde bateko tutoreak hainbat irakasgai irakastea, eta abar.
 - ikasgela batean bi irakasle egotea, talde interaktiboak, solasaldiak, tutorepeko biblioteka, lankidetzan ikaste-egituraketa
 - hizkuntzetan komunikazioa lantzeko banaketa heterogeneoak
 - IKTak sarriago eta hobeto erabiltzea
 - ikasleentzat esanahia duten testuingurutan kokaturik dauden ariketak egitea, proiektuak egitea, irteera pedagogikoak egitea ...
- Proiektua bultzatzeko, ezinbestekoa da irakasle guztien arteko koordinazioa, bai bertikala bai horizontala; batez ere, proiektuaren xede diren ikasleak dauden taldeekin harremanak izango dituzten irakasleen arteko koordinazioa.



- HBSPk senideekiko harremana eta horien parte-hartzea landu behar du, baita prestakuntza jasotzeko aukera eman ere, eskolako emaitzak hobetzeko eragiten duten aldagaiak baitira.
- HBSPk ikasleekin interakzioa duten inguruko eragileekiko koordinazioa bultzatu behar du.
- HBSP garatzeko eta geroz eta inklusiboagoa izan dadin, ikastetxeak barne-prestakuntza antolatu behar du, eta irakasleei (tutoreak, ikasketa-buruak eta orientatzaileak, besteak beste) aukera eman Administrazioak ezartzen dituen prestakuntza-jardueretan parte hartzeko.

4. Eskabidearen aurkezpena

Eskabideak aurkezteko epea Jarraibideak Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta martxoaren 31n amaituko da, egun hori ere barnean hartuta.

Eskabideak dagozkien agiriekin batera elektronikoki tramitatuko dira. Tramitazioa ikastetxe publikoentzako atari honetan egingo da: “Herri-ikastetxeak/Deialdiak” (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/>)

Deialdiko fitxa atari horretan argitaratuko da, baita deialdi honekin lotutako berri guztiak ere. Fitxa horretan, eskatzaile guztien eskura izango dira eskaera egiteko gida eta jarraibideak.

5. Eskabideak eta dokumentazioa

1. HBSP Proiektua eskatzen duten ikastetxeek, eskabidearekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar dute:
 - Inprimaki normalizatua talde eta ikasle kopurua adierazita (gutxienez 8).
 - Parte-hartze proposamena. Proposamen horretan, hauek sartu behar dira:
 - Proiektuak erantzungo duen beharren justifikazio laburra eta ikastetxearen aniztasunari erantzunaren antolaketa.
 - Proiektuaren parte-hartze espezifikoaren helburuak eta Aniztasunari erantzuteko Planarekin dituen loturak.
 - Proiektua garatzeko, orientabideen ikuspuntuari jarraituz aurrera eramango diren ekintza zehatzak. Zehaztuko da non parte hartuko duen irakasle batek baino gehiagok eta nola gauzatuko den baterako ekintza.
 - Gelan egindako ekintzen laburpena aipatuz zein arlotan parte hartuko den, zein ekintza egingo diren eta bakoitzaren irakasle arduraduna nor den. Zehaztuko da halaber: 1. Mailako gelak orotara; 2. Mailako gelak orotara; zein gelatan eramango den aurrera proiektua eta zenbat ikaslek justifikatzen dute baliabide hau gelako-
 - Ikasleriaren jarraipenaren zehaztapenak.
 - Familien parte-hartzearen deskribapena proiektuarekin zerikusia duten jarduketetan.
 - Proiektuan parte hartzen duen irakasleriaren parte-hartzea jarduketetan.
 - Proiektua eta ikasleak ebaluatzeko adierazleak.



HEZKUNTZA SAILA

Hezkuntza Sailburuordetza
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Educación
Dirección para la Diversidad e Inclusión
Educativa

2. Eskatzaileak, eskabidearekin batera doan erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, betebeharrak konplitzen dituela egiaztatuko du:
- Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) onartu behar du HBSP proiektua egitea.
 - Ikastetxeko OOGk konpromisoa hartu behar du proiektua urteko planean sartzeko eta Berritzeguneei antolatzen dituzten jardueretan parte hartzeko.
 - Ikastetxeak konpromisoa hartu behar du proiektua deialdi honetan ematen diren jarraibideak betetz lantzeko.
 - Ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi behar zaie ikasleak proiektuan parte hartuko dutela, eta haien iritzia jaso behar da.
 - Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela adieraztea.

6. Kudeaketa-organoa

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak kudeatuko du Jarraibide honetan aurreikusita dagoen irakasleen moduluak emateko prozedura.

7. Hautaketa-batzordea

Hautaketa-batzordeak hautatutako ikastetxeen zerrendak egingo ditu. Hauek osatuko dute Batzordea:

- Aniztasunari erantzuteko zerbitzu burua.
- Hezkuntza berritzatzeko Lurraldeburuak edo hark eskuordetzen dituzten pertsonak.
- Berritzegune nagusiko eskola inklusiboaren arduraduna.
- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzako teknikari bat, Aniztasunerako eta hezkuntza inklusiorako zuzendariak izendatua; idazkari-lanak egingo ditu.

8. Hautaketa Prozedura

Ikastetxeak baloraziotik kanpo geratuko dira:

- Gutxienez 8 ikaslek osatutako taldea ez badute aurkezten
- Ikastetxeak jasotako baliabidea taldeak eta saio bereziak sortzeko erabiltzen badituzte

Aurkeztutako proiektuak, jarraian aipatzen den baremoaren arabera baloratuko ditu Hautaketa Batzordeak

1. Proiektuaren balorazioa. Proiektua deialdian azaldutako helburu eta irizpideekin bat etortzea, eta parte hartzen duten familien eta agenteen arteko koordinazio eta parte-hartze maila: HBSP PROIEKTUA BALIOESTEKO IRIZIPIDEAK ERANSKINAK diona jarraituz **gehienez 35 puntu**. Aukeratua izateko gutxieneko puntuazioa: **18 puntu**.
2. Proiektuan parte hartzen duten ikasleen tipologia eta ingurune behartsuetan bizi diren kontuan hartuta.



HEZKUNTZA SAILA

Hezkuntza Sailburuordetza
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Educación
Dirección para la Diversidad e Inclusión
Educativa

- 2.1. Ikastetxeak Hezkuntza konplexutasunaren indize (HKI) oso altua edo altua badu: 20 puntu.
- 2.2. Ikastetxea Eraldatzen programarena bada: 10 puntu
- 2.3. Beste ikastetxe guztientzat honako baremoa aplikatuko da: gehienez 10 puntu.

DBHko 1. eta 2. mailako ikasle bekadunen P ehunekoa

$P < 35$	0 puntu
$35 \leq P < 50$	1 puntu
$50 \leq P < 60$	4 puntu
$60 \leq P < 70$	6 puntu
$70 \leq P < 80$	8 puntu
$80 \leq P$	10 puntu

DBHko 1. eta 2. mailan matrikulatutako ikasleen ratioa: gehienez 5 puntu

15 eta 20 artean	3 puntu
20 baino gehiago	5 puntu

Hautaketa batzordeak, aurreko puntuko baremoa hartuta ebaluatuko du eskabide bakoitza. Horretarako, behar diren txosten teknikoak eskatu ahal izango dizkie laguntza zerbitzuei.

Baliabideak, baremazioan lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera emango dira, errekurtsioak amaitu arte.

Puntuazio-berdinketa kasuetan, ebazteko, kontuan hartuko da Eraldatzen Programaren zentro izatea; berdinketa jarraitzen badu, Hezkuntza konplexutasunaren indize (HKI) altua duen ikastetxea izatea; berdinketa jarraitzen badu kontutan hartuko da proiektuan lortutako balorazioa; eta, berdinketak jarraitzen badu, bekadunen portzentajearen lortutako puntuazioa.

9. Prozedura ebaztea

1. Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendariak, Hautaketa Batzordeak helarazitako proposamenak aztertu ondoren, gehienez ere sei hilabeteko epean emango du ebazpena, aurkeztutako proiektuak hautatuak izan diren ala ez zehaztuta. Hezkuntza Saileko webgunean eta: “Herri-ikastetxeak/Deialdiak” (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/>) atariaren bidez ebazpena argitaratu eta jakinaraziko zaie interesdunei.
2. Ikastetxe interesdunek hamar eguneko epea izango dute, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, haren aurkako erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendariak ebatziko ditu.
3. Aurreko paragrafoan aditzera ematen den gehienezko epea amaitu eta prozeduraren ebazpena jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu beharko dute eskabidea ukatu zaiela,



Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua ondu eta onartu da.

10. Betebehar-bereziak

Aukeratutako ikastetxeek egin behar hauek bete behar dituzte:

1. Koordinatzaileak, zuzendaritza-taldearen laguntzaz eta, hala badagokio, koordinazio-taldearen laguntzaz, proiektuaren abiaraztea dinamizatuko du, eta irakasleen, ikasleen familien eta ikastetxeko gainerako eragileen partaidetza bultzatuko du
2. HBSP proiektuaren helburua diren ikasle horiek ohiko ikasgela batean barneratuta egon beharko dute.
3. Urriaren 15erako, ikasle bakoitzak bere Banakako Lanerako Plana izango du, zeina Hezkuntza Ikuskaritzaren eta zonaldeko Berritzegunearen eskura egongo den. Plan horrek ikasle bakoitzaren egoera pertsonala aintzat hartuko du, eta datu hauek jaso behar ditu, gutxienez:
 - *ikaslearen hezkuntza-premien deskribapena*
 - *gela barruan hainbat eremu jorrazteko lan-proposamena (zer, noiz, nola ...)*
 - *tutoretza pertsonalizatua (nor, noiz, zertarako ...)*
 - *derrigorrezko ordutegitik kanpoko hezkuntza-errefortzua (BIDELAGUNA arratsaldeko tutoretzak ...)*
 - *senideekiko harremanak,*
 - *planaren jarraipena eta ebaluazioa*
4. Ikasturte bakoitzaren amaieran, ikaslearen tutoreak, irakasle-taldeak adierazitakoa entzun ostean eta ikastetxeko orientatzailearen laguntzaz, Banakako Planaren balorazioa egingo du. Balorazio horretan, hezkuntza-prozesua jarraitzeko gomendioak adieraziko ditu.
5. Ikastetxeak, herri ikastetxea/deialdiak atarian <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak> argitaratuta duen eranskina-JUSTIFIKAZIOA (EREDUAK) beteko du. Dokumentu hauek ikastetxeko urteko memorian jasoko dira eta Herri ikastetxera bidali beharko da, 2023ko uztailaren 30a baino lehenago. Mesedez, igo fitxategia .xls formatuan.

11. Jarraipena eta ebaluazioa

Zonaldeko Berritzeguneei proiekturako aholkularitza emango dute eta jarraipena eta ebaluazioa egingo dute.

Hala, ebaluazio-saio bat egingo da ikastetxe guztietan, ikastetxearen (zuzendaritza-taldea eta koordinatzailea) eta zonaldeko Berritzeguneei artean. Saio horretan proiektuaren helburuak zenbateraino bete diren aztertuko dute. Ikasleen hobekuntzak, aurkitutako zailtasunak eta ikastetxeak hurrengo ikasturterako egiten dituen hobekuntza-proposamenak ere aztertuko dituzte. Proiektuaren Garapenerako Orientazioetan ezarri diren jardueren-ildoekin bat etorritik. Hori guztia ikastetxeak egin behar duen memorian jasota geratuko da.



Hezkuntzako ikuskaritzak, proiektua justifikatzen duen ikasle bakoitzak Banakako Lanerako Plana duela baieztatuko du eta ikastetxearen jarraipena egingo du, proiektuan parte-hartzeak berekin dakarren baldintzak eta betebeharrak betetzen dituela bermatuz

12. Datuen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzako Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuak izeneko 19. fitxategian sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzara jo behar da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten zentroek baimena ematen diote Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiaztatzeko aurkeztu dituzten dokumentuak egiazkoak diren.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean

BEGOÑA PEDROSA LOBATO
HEZKUNTZA SAILBURORDEA



ERANSKINA: HBSP PROIEKTUA BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

1.1 Ikastetxeak aniztasunari ematen dion erantzun orokorra; HBSP proiektuak beste neurriekin duen erlazioa: (gehienez 3 p.)	
Ikastetxearen ibilbidea aniztasunari erantzun inklusiboa emanez (ikastetxeak beste jarduera inklusibo batzuk aipatzen ditu).	gehienez 1 p
HBSPak ikastetxearen Aniztasunaren Arretarako Planarekin duen erlazioa.	gehienez 2 p
1.2. Baliabideen erabilera gelaren praktika inklusiboan (gehienez 7 p)	
Talde elkarreragileak, arloak eta multzoak (proiektuko talde guztietan).	gehienez 3 p
Bi irakasle/gelako talde heterogeneoak kudeatzeko metodologia aktiboa (lankidetzakoa, elkarlanekoa, ...) erabilia; proiektuaren talde guztietan, arlo instrumentaletan.	gehienez 4 p
1.3. Antolaketa eta metodologi aldaketak aparteko baliabiderik gabe (gehienez 5 p)	
Lankidetzako ikaskuntza, elkarlaneko ikaskuntza, proiektuak, IKT baliabideen aprobetxamendu hobea.	gehienez 5 p
Gaikako berriketaldiak.	gehienez 1 p
Parez pareko laguntza irakurketa gidatuan; bikoteka egindako irakurketa.	gehienez 1 p
Gelako irakasle kopurua murriztea.	gehienez 1 p
1.4 Ikasleei egindako jarraipena (gehienez 4 p)	
Tutoretza pertsonalizatuak proiektuan parte hartzen duten ikasle guztientzat (ordutegietan ikusten da)	gehienez 2 p
Irakasleen saio bereziak ikasle hauen jarraipena egiteko	gehienez 1 p
Jarraipena laguntzeko tresna bereziak	gehienez 1 p
1.5 Irakasleen laguntzaz eskolako orduetatik kanpo prebentzioa berrindartzeko ordutegia luzatzea: Bidelaguna, tutoregoko liburutegiak, berriketaldirako tailerra, ikasteko estrategiak berritzeko tailerrak, hizkuntza tailerra, Berbalaguna, ikasle enbaxadorea... (gehienez 3 p)	
Hiru jarduera baino gehiago.	gehienez 3p
Bi jarduera.	gehienez 2 p
Jarduera bat.	gehienez 1 p
1.6 Familiaren parte-hartzea (gehienez 5 p)	



Gelan parte-hartze sistematiko eta planifikatua.	gehienez 2 p	
Prestakuntzan parte hartzea.	gehienez 1 p	
Batzordetan parte hartzea.	gehienez 1 p	
Ordutegia luzatzeko jardueretan parte hartzea.	gehienez 1 p	
1.7. Irakasleriaren eta ikasketa-buruaren inplikazioa	(gehienez 6 p)	
Kurtso hauetako irakasleen parte-hartzea gelan, proiektuaren orientabideen barruan, egindako ekintza inklusiboetan (taldeko irakasleen % eta DBHko irakasleen %).	gehienez 4 p	
Proiektuaren orientabideen barruan gelako ekintza inklusiboetan etapako irakasleen parte hartzea.	gehienez 2 p	
1.8. Ebaluazioa	(gehienez 2 p)	
Ikasleak, prozedurak... ebaluatzeko adierazleak	gehienez 1 p	
Proiektua, prozedurak... ebaluatzeko adierazleak	gehienez 1 p	
GEHIENEZ 35 PUNTU		